4. edizioa / 4ª edición

## Zer da Bilboko Gazte Panela?

**BILBOKO GAZTE PANELA (BGP)** Bilboko gazteen (18-30 urte) eta Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailaren arteko partaidetza eta elkarrizketarako gunea da, udal-politikak gazteei helarazteko eta Gazteen Tokiko Agendaren diseinuan parte har dezaten ahalbidetzeko.

Honako hau Bilboko Gazte Panelaren **laugarren edizioa** da. Bilboko Gazte Panela erreferentziako partaidetza-prozesu gisa sendotuz doa eta aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena ematen dio, ikaskuntzak txertatuz eta gazteek udal-politiketan duten zeregin aktiboa indartuz.

BGPk helburu hauek ditu:

- Udalaren funtzionamendua eta jarduera ezagutaraztea.
- Bilboko gazteen interesak eta kezkak identifikatzea.
- gazteen parte-hartzea sustatzea Gazteen Tokiko Agendaren diseinuan, elkarrekin egindako sorkuntza-prozesuen bidez.
- gazteen eta Udalaren artean zuzeneko komunikazio-bideak sortzea.

## Nork eman dezake izena deialdian?

Honako hauek eman dezakete izena deialdian:

- Bilbon bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- Bilbon diharduten gazte-elkarte, -talde edo -mugimenduetako 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

Izena emateko unean 18 urte beteta eta programa garatzeko aldi osoan (2026ko urritik 2027ko maiatzera) 30 urte gainditzen ez dituzten pertsonek parte hartu ahal izango dute.

Bilboko Gazte Panelaren aurreko hiru edizioetan parte hartu duten pertsonek ez dute lehentasunik izango deialdi honetako eskatzaile berrien aurrean.

## ¿Qué es Bilboko Gazte Panela?

**BILBOKO GAZTE PANELA** (BGP) es un espacio de participación colaborativa entre personas jóvenes de Bilbao (18-30 años) y el Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao, con el fin de acercar las políticas municipales a las personas jóvenes, así como posibilitar su participación en el diseño de la Agenda Local de Juventud.

En esta ocasión, Bilboko Gazte Panela celebra su **cuarta edición**, consolidándose como un proceso participativo de referencia y dando continuidad al trabajo desarrollado en ediciones anteriores, incorporando aprendizajes y fortaleciendo el papel activo de las personas jóvenes en las políticas municipales.

BGP tiene como objetivos:

- dar a conocer el funcionamiento y la acción municipal,
- identificar intereses e inquietudes de los y las jóvenes de Bilbao,
- promover la participación de los y las jóvenes en el diseño de la Agenda Local de Juventud a través de procesos de creación conjunta,
- generar canales directos de comunicación entre los y las jóvenes y el Ayuntamiento.

## ¿Quiénes pueden inscribirse en la convocatoria?

Podrán inscribirse en la convocatoria:

- Personas jóvenes de entre 18 y 30 años residentes en Bilbao.
- Personas jóvenes de entre 18 y 30 años pertenecientes a asociaciones, agrupaciones o movimientos juveniles con actividad en Bilbao.

Podrán participar aquellas personas que, en el momento de formalizar la inscripción, hayan cumplido 18 años y no superen los 30 años durante todo el periodo de desarrollo del programa (octubre de 2026 a mayo de 2027).

Aquellas personas que ya hayan participado en las tres ediciones anteriores de Bilboko Gazte Panela no tendrán preferencia frente a las nuevas personas solicitantes en la presente convocatoria.

#EUSKADIBERRIA

## Izena emateko epea

- Izena emateko epea: **irailaren 7tik 25era**.
- Izena BilbaoGazte webgunearen bidez emango da.

## Parte-hartzaileak hautatzea eta Bilboko Gazte Panela 26/27 eratzea

- **Bilbon bizi diren 28 gaztek** osatuko dute Bilboko Gazte Panela 26/27, hiriko **8 barrutien** arteko banaketa orekatua kontuan hartuta. 28 pertsona horietatik gutxienez **3 Bilbon diharduten gazte-elkarte, -talde edo -mugimenduetako gazteak izango dira.**
- Aurreko edizioetako panelistek eta Gazteria eta Kirol Saileko teknikariek erabakiko dute nortzuk izango diren parte-hartzaileak, irizpide hauek kontuan hartuta: adina, generoa, aniztasuna, prestakuntza, eta BGP-n parte hartzeko motibazioa eta interesa.
- Era berean, betekizunak bete baina plazarik lortzen ez duten pertsonekin erreserba-zerrenda bat egingo da, eta zerrenda hori erabiliko da programan zehar gerta daitezkeen bajak betetzeko.

## 2026/2027 Bilboko Gazte Panelaren garapena

- BGP 26/27 2 fasetan garatuko da, 2026ko urritik 2027ko maiatzera:
  - **I. fasea** (2026ko urria-abendua, 4 saio): udaletako gazte-politikak aztertzea eta Gazteriaren Tokiko Agendan gehienez ere parte har dezaketen **bi proiektu identifikatzea**.
  - **II. fasea** (2027ko urtarrila-maiatza, 6 saio): panelistek proiektuak diseinatu, antolatu eta abian jartzera bideratuta dago.

## Periodo de inscripción

- El plazo de inscripción será del **7 al 25 de septiembre.**
- La inscripción se realizará a través de la web de BilbaoGazte.

## Selección de participantes y constitución de Bilboko Gazte Panela 26/27

- Bilboko Gazte Panela 26/27 estará integrado por **28 personas jóvenes residentes en Bilbao**, teniendo en cuenta una distribución equilibrada entre los **8 distritos** de la ciudad. De entre esas 28 personas, al menos **3 serán personas jóvenes vinculadas a asociaciones, agrupaciones o movimientos juveniles que desarrollen su actividad en Bilbao**.
- La selección de las personas participantes se realizará de manera conjunta entre panelistas de ediciones anteriores y personal técnico del Área de Juventud y Deporte, atendiendo a los siguientes criterios: edad, género, diversidad, formación, así como motivación e interés por participar en el BGP.
- Asimismo, entre aquellas personas que cumplan los requisitos y no obtengan plaza se constituirá una lista de reserva, que se utilizará para cubrir posibles bajas que puedan producirse durante el desarrollo del programa.

## Desarrollo de Bilboko Gazte Panela 26/27

- BGP 26/27 se desarrollará en 2 fases de octubre de 2026 a mayo de 2027:
  - **Fase I** (octubre-diciembre 2026, 4 sesiones): centrada en el análisis de las políticas municipales de juventud e identificación de **un máximo de dos proyectos** susceptibles de formar parte de la Agenda Local de Juventud.
  - **Fase II** (enero-mayo 2027, 6 sesiones): orientada al diseño, organización y puesta en marcha de los proyectos por parte de los y las panelistas.

- BGP 26/27 **aurrez aurreko saio** dinamiko eta parte-hartzaileen bidez garatuko da, eta laguntza teknikoa izango du prozesu osoan. **Larunbat goizetan** egingo dira, **10:00etatik 13:00etara, La Perrera eraikinean (Sabino Arana 50, Bilbo).**
- Proiektu bakoitzak **5.000 € arteko (BEZa barne) zuzkidura ekonomikoa** izango du garatzeko, bai eta **La Perrerako espazioak eta ekipoak** (disponibilitatearen arabera) eta behar den **laguntza teknikoa** ere.

## Konpentsazioa panelistei parte hartzeagatik

- Panelista bakoitzak **50 euroko konpentsazioa jasoko du aurrez aurreko saio bakoitzeko**, eta Gazteria eta Kirol Sailak ordainduko du programaren fase bakoitza amaitu ondoren, asistentzia eta inplikazio graduaren arabera.
- Gainera, BGP 26/27ren **bi faseak amaitu ondoren**, proiektu bakoitza garatzeko eratzen den talde bakoitzak gehienez **250 €**-ko zenbateko gehigarria izango du **kide bakoitzeko**. **Zenbateko hori ez zaio kide bakoitzari automatikoki esleituko; aitzitik, dagokion proiektu-taldeak elkarrekin adostuko du,** eta kideen artean banaketa desberdina ezarri ahal izango da. Esleipen hori egiteko, taldeek kontuan hartu ahal izango dituzte, besteak beste, bertaratze-maila, saioetako parte-hartze aktiboa eta proiektuaren garapenean izandako inplikazioa.
- Bilboko Gazte Panela behar bezala garatzeko, ezinbestekoa izango da saio guztietara joateko eta horietan aktiboki parte hartzeko konpromisoa.
- Behin eta berriz huts egiten bada edo behar adinako inplikaziorik ez badago, Gazteria eta Kirol Sailak, Bilboko Gazte Panela osatzen dutenekin batera, pertsona horri programan baja ematea erabaki ahal izango du.

- BGP 26/27 se desarrollará mediante **sesiones presenciales** dinámicas y participativas, contando con apoyo técnico durante todo el proceso. Se realizarán los **sábados por la mañana**, en horario de **10:00 a 13:00 horas**, en **La Perrera (Sabino Arana, 50 – Bilbao)**.
- Cada uno de los proyectos contará con una **dotación económica de hasta 5.000 € (IVA incluido)** para su desarrollo, así como los **espacios y equipos de La Perrera** (en función de su disponibilidad), y **apoyo técnico** necesario.

## Compensación por participación a panelistas

- Cada persona panelista percibirá una **compensación por participación de 50 € por cada sesión presencial,** que será abonada por el Área de Juventud y Deporte tras la finalización de cada una de las Fases del programa, en función del grado de asistencia e implicación.
- Además, **una vez finalizadas las dos fases** de BGP 26/27, cada equipo que se forme para desarrollar cada proyecto dispondrá de un importe adicional máximo de **250 € por integrante. La asignación de este importe a cada integrante no será automática, sino que será acordada de forma conjunta por el equipo de proyecto correspondiente**, pudiendo establecerse una distribución diferente entre sus integrantes. Para dicha asignación, los equipos podrán tener en cuenta criterios como el grado de asistencia, la participación activa en las sesiones y la implicación en el desarrollo del proyecto, entre otros.
- Para el adecuado desarrollo de Bilboko Gazte Panela, será imprescindible el compromiso de asistencia y participación activa en el conjunto de las sesiones.
- En caso de ausencias reiteradas o de falta de implicación suficiente, el Área de Juventud y Deporte podrá acordar, junto con las personas integrantes de Bilboko Gazte Panela, la baja de la persona en el programa.

**BGP 26/27ko irudien eta proiektuen zabalkundea**

- Bilboko Udalak Bilboko Gazte Panelaren saioen irudiak zabaldu ahal izango ditu webgunean, sare sozialetan eta abarretan, bai eta proiektuen exekuzioari eta garapen-prozesuari buruzkoak ere.

**Difusión de imágenes y proyectos de BGP 26/27**

- El Ayuntamiento de Bilbao podrá difundir imágenes de las sesiones de Bilboko Gazte Panela y de la ejecución de los proyectos y de su proceso de desarrollo en la web, redes sociales, etc.

**Informazio gehiago / Más información:**

gazteria@bilbao.eus
944654775